

Balorezko proposamena

Gure proiektua besteetatik bereizten da autoen pertsonalizazio eta egokitzapen funtzionalean jartzen dugun arreta bereziagatik, batez ere ezintasunen bat duten pertsonen mugikortasuna hobetzeko. Beste lehiakide askok tuning estetikoan soilik zentratzen diren bitartean, guk segurtasuna, erosotasuna eta erabilgarritasuna lehenesten ditugu, bezero bakoitzaren beharretara egokitutako irtenbide pertsonalizatuak eskainiz.

Prozesu osoa erraza eta fidagarria da hasieratik amaierara. Online bidez hitzordua eskatuta, gure adituek bezeroarekin harremanetan jartzen dira gustuak, beharrak eta aukerak zehazteko. Hasieran, online erakutziko dizkiegu plano batzuk beraiek ikusteko nola geldituko zen autoa gutxi gora behera, eta tailerrean bertan zehatzago erakutziko diegu nola geldituko litzateke forma errealistago batean. Autoen pertsonalizazioa, egokitzapena eta homologazioa modu profesional eta seguruan egiten ditugu, bezero guztiek konfiantzaz eta lasaitasunez gure zerbitzua erabil dezaten.

Gure proiektuaren abantailak honako hauek dira:

1.NOBEDADEA: Esperientzia bat sortzea. Online bidez zita eskatzea eta zure ideiekin lotuta tailerraren langileak zurekin kontaktuan jartzea eta nola geldituko den erakuztea bezeroak ideia bat izateko. Tailerrean esperientzia berri bat izatea prozesu guztia ikusiz.

2.PRESTAZIOAK: Enpresak esperientzia bat sortzea bilatzen duenez, horretarako hainbat tresna online erabili dira, web horrialdeko asistentzia pertsonalizatua edo aholkuak besteak beste. Horrekin batera, tailerrean gustora egotea bilatzen dugu. Azkenik, zerbitzua amaituta dagoenean autoen adaptazioak iraunkorrak dira, horrela bezeroak pozik daudela bermatzen.

3.PERTSONALIZAZIOA: Produktuen konbinaketa egiteko askatasuna edo ahalmena eskaintzen zaio bezeroei.

4.LANA ERRAZTEA: Sustituzio kotxe on bat eskeintzen diegu bezeroei, baita tuneatu ostean ITV paperak ordenen jartzea ere.

5.MARKA: Konpatibleak ez diren piezen homologazioa bat egitea konpatibleak izan daitezen.

6.ARRISKUA MURRIZTEA: Erabilitako piezak konpatibleak izango dira, horrela fabrikantearen bermea ez galtzeko eta bezeroen konfiantza mantentzeko.

7. PREZIOA: Prezioak tuneaketaren arabera aldatu egingo dira eta ez dira finkoak izango.

8.ESKURAGARRITASUNA: Abantaila badugu hurbil gaudelako eta saldu osteko zerbitzua ere badaukagulako. Guk zerbitzua eman ostean arazorik badute hurbil gaude lagundu ahal izateko. Gainera bezeroekin harreman hurbila badugu.